

**Fiskalizazio Txostena**  
**Informe de Fiscalización**

**Gazteluko Udalaren Kultur-Etxea**  
**Erakunde Autonomoa**

**Organismo Autónomo Kultur-Etxea**  
**del Ayuntamiento de Gaztelu**

**1991-1996**



**Herri Kontuen**  
**Euskal Epaitegia**

**Tribunal Vasco**  
**de Cuentas Públicas**



**Gazteluko Udalaren  
Kultur-Etxea  
erakunde autonomoa**

**Organismo autónomo  
Kultur-Etxea del  
Ayuntamiento de Gaztelu**

**1991-1996**

---

Vitoria-Gasteiz, 1997ko azaroak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de noviembre de 1997



## AURKIBIDEA/ÍNDICE

I.	SARRERA.....	1
II.	ONDORIOAK .....	2
	II.1 Legezko tasuna betetzeari buruzko iritzia .....	2
	II.2 1996-ko urteko kontuei buruzko iritzia .....	4
	II.3 Zerbitzua kudeatzeko moduari buruzko irizpenak .....	5
III.	URTEKO KONTUAK .....	6

## ERANSKINA .....

7

A.1	Higiezindua .....	7
A.2	Aktibo ibilkorra .....	8
A.3	Fondo propioak .....	8
A.4	Epe motzeko hartzekodunak .....	9
A.5	Gastuak .....	9
A.6	Sarrerak .....	11
A.7	Alderdi fiskalak .....	12

I.	INTRODUCCIÓN .....	13
II.	CONCLUSIONES .....	14
	II.1 Opinión sobre cumplimiento de la legalidad .....	14
	II.2 Opinión sobre las cuentas anuales de 1996 .....	16
	II.3 Consideraciones sobre la forma de gestión del servicio .....	17
III.	CUENTAS ANUALES .....	18

## ANEXO .....

19

A.1	Inmovilizado .....	19
A.2	Activo circulante .....	20
A.3	Fondos propios .....	20
A.4	Acreedores a corto plazo .....	21
A.5	Gastos .....	21
A.6	Ingresos .....	23
A.7	Aspectos fiscales .....	24

## 1. SARRERA

Gazteluko Udalaren Alkatea laguntza eske etorri zitzaion Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Kultur-Etxea erakunde autonomoak zerbitzuak emateko molde juridikoa aldatzearren.

Egiteko hori aurrera ateratzeko beharrezko zen dokumentazioa eskuratzean hainbat huts aurkitu ziren erakunde autonomoaren kudeaketan. erakundearen gaineko txosten diagnostikoaren zirriborroa egitera bultzatu gintuena. 1991-95 bitarteko aldiari buruzkoa. Epaitegiak txosten diagnostikoaren zirriborro honen ondorioak erakundearen arduradun eta kudeatzaileei iristarazi zizkien, haiek egoki iritzitako alegazioak aurkez zitzaizen.

Alegazio hauek jaso ondoren, epaitegiaren 97.02.20ko osokoak 1997. urteko Lan Programan Gazteluko udalaren Kultur-Etxea erakunde autonomoari buruzko fiskalizazio txostena barne hartzea erabaki zuen.

Berrazterketa osagarriak 1996. urtealdiko Kultur-Etxearen Urteko Kontuen gaineko auditorereta eta urte horretako indarreko legedia bete izanaren berrazterketa besarkatu ditu.

Txosten honetan hasierako diagnostikoan eta ondoren egindako fiskalizazio lanean eskuratutako ondorioak jaso ditugu.

Leaburu-Gaztelu-Txarama Udalaren Osokoak Kultur-Etxea erakunde autonomoaren estatutuak 1990eko irailaren 26an onartu zituen. 1994ko urritik aurrera, Leaburu eta Gaztelu arteko bereizketa prozesua amaitu ondoren, erakundea Gazteluko Udalaren erakunde autonomoa da.

Kultur-Etxeak batez ere ostatu zerbitzua ematen du, aterpetxe, jatetxe eta taberna zerbitzuak barne.

1996an zazpi langileko plantila izan du (Zuzendari-Administratzaile bat eta beste sei langile) guztiak lansaio osoa betetzeko kontratatatuak.

1997ko maiatzaren 8ko osokoak NOKA 2001, SLri Gazteluko udalaren Kultur-Etxeko aterpetxe, jatetxe eta taberna zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitu zion.



## II. ONDORIOAK

### II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### Alderdi Orokorrak

1. Kultur-Etxearen estatutuak Errektoretza Batzordea osatzen dute, erakundearen gobernu eta kudeaketaren erantzule. Alkateak egiten du buru, eta lehendakariorde batek eta Udalaren Osokoa osatzen duten talde politikoak ordezkatzeko dituzten hiru bokalek eratzen dute.

Errektoretza Batzorde hau erakundeak sortu zenetik egin dituen sei urtetan ez da behin bakarrik ere elkartu, aurreikusitako estatutu erregimena hautsiz, nahiz eta Udalaren osokoak Kultur-Etxeko jardueraren zenbait alderdi arautzeko erabaki zehatzak hartu dituen.

2. Erakunde publiko oro bezala, Kultur-Etxea aurrekontu erregimenera bildua dago eta bertako jarduera planifikatzeko urteko aurrekontua oniritzi behar du.

Erakundeak ez du urteko aurrekontu hau aztergai izan ditugun sei urteetik bakar baterako ere egin eta honenbestez, indarreko lege araudia urratu du.

Gabezia honek oinarritzko aurrekontu kontrolak -aurrekontu kudeaketa eta kontabilitatea- ez betetzea eragiten du, ez ekonomia jarduera planifikatzeko unean, ez horren egiterapenean ere.

3. Prezio publikoak udal agintaraudiak onartu behar ditu (Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen 11/89 Foru Arauaren 43. artikulua).

Erakundeak ematen dituen zerbitzuei ezartzen zaizkien prezioak, ordea, ez ditu horretarako eskumena duen inongo erakundek onartu.

4. Kultur-Etxeak 1993.aren amaieran Zuzendari-Administratzailearen senitarteko batek egindako 1.000.000 pta.ko mailegu bat erabili zuen, Udalak hori oniritzi gabe. Amortizazioa 1995eko urtarrila eta ekainean egin zen, %5,5eko interesak ordaindiz eta atxikipen fiskalak ezarri gabe.

#### Kobraketa eta ordainketak

5. Kultur-Etxeak egiten dituen ordainketa guztiak Alkateak onartu behar ditu (Estatutuen 9. atala). Hala eta guztiz ere, Kultur-Etxearen eskudiruzko kutxatik egiten diren ordainketak Zuzendari-Administratzaileak soilik baimentzen ditu. 1996an, ordainketa hauek, gutxi gora-behera 9.600.000 pezeta egiten dituzte.

6. 1993 eta 1994an banketxe bateko aurrezki libreta baten bitartez kontabilitatean islarik izan ez duten kobraketa eta ordainketak egin dira, 1.526.079 pta.ko zenbatekoan. Sarrerak «B» kodeko serie berezi bateko ordainagiriei dagozkie, BEZik gabe egindakoak. Kontabilizatu gabeko ordainketak Zuzendari-Administratzaileari 1994an emandako ordainsari osagarriek eta langileei 1993 eta 1994an banatutako zuzpergarriek osatzen dituzte (ikus A.7 eranskina).



Kontu honetako fondoan erabilera Zuzendari-Administratzailearen izenpearekin soilik egiten zen eta honenbestez, ordainketak Alkatearen onirizpenik gabe egiten ziren.

### Langileria eta fiskala

7. Kultur-Etxearen Lanpostu Zerrenda onartu gabe dago.
8. 1996ko abenduaren 31n plantila zazpi langilek osatzen zuten. Kontratu horietako bi 2.104/84 Errege Dekretuaren babesean egin dira, 1994ko martxoan eta apirilean, bien oinarria «lan pilaketa» izan dela. Kontratazio hori eginez geroztik igaro den denbora gogoan hartuta, berari irregularra dela esan behar da, lan araudiak kontratu horiek hamabi hilabeteko epean gehienera sei hilabete iraun dezaketela agintzen baitu.
9. Azken bost urteetan ordainsariak NUIZ atxikipenak egin gabe, Foru Ogasunean aitortu gabe eta horiengatik Gizarte Segurantzari kotizatu gabe ordaindu dira. Ordainketa hauek 10.616.351 pezeta egiten dituzte (kontabilizatutako langile gastuen %13) eta honako hauek dira (ikus A.7 eranskina):

	Pezeta					
NOMINAZ KANPOKO ORDAINSARIAK	1992	1993	1994	1995	1996	GUZTIRA
Zuzendari-Administratzailea						
- Zuzendaritza lanak...	-	113.456	836.079(*)	1.002.151	998.506	2.950.192
- EPSW/BGAEn ekarpena ...	-	-	420.000	462.000	505.364	1.387.364
- Zuzpergarrak ...	-	40.000(*)	50.000(*)	-	-	90.000
Lehenagoko Zuzendari-Administratzaileak						
- Soldatak ...	1.219.298	288.017	-	-	-	1.507.315
- Kalteordainak ...	621.955	-	-	-	-	621.955
Beste langile batzuk						
- Soldatak ...	1.806.648	-	-	-	-	1.806.648
- Zuzpergarrak ...	-	300.000(*)	300.000(*)	-	-	600.000
- Kalteordainak ...	-	138.500	150.000	-	-	288.500
- Ordutako lanak ...	486.442	213.872	115.500	186.188	362.375	1.364.377
<b>GUZTIRA AITORTU GABEKO LANSARIAK</b>	<b>4.134.343</b>	<b>1.093.845</b>	<b>1.871.579</b>	<b>1.650.339</b>	<b>1.866.245</b>	<b>10.616.351</b>

(\*) Kontabilitatean jaso gabeko ordainsariak

10. Aldi berean kontabilitate eta nominen ardura duen profesionalari 4.002.500 pezeta ordaindu zaizkio, egitekoa kontraturik gabe eta emandako zerbitzuen kobraketa justifikatuko duten ordainagiriak aurkeztu gabe betetzen duena. Ordainketa hauengatik ez dira NUIZ atxikipenak egin.
11. Jasotako ordainagirien ganean egin den azterketan arauzko betekizunik ez dagoela egiaztatuta da, hala nola, IFZ, ordainagiri data eta zenbaki eza. Eutsitako BEZ ere ez da xehekatzen, 1996. urtealdian 2.700.000 pezeta inguru egin duten ordainagiritan.



Epaitegi honen ustetan, aurkitu ditugun legehausteak direla eta, Kultur-Etxeak ez du 1991-1996 aldian bere ekonomia-finantza jarduera indarreko legediak agintzen duen lege oinarriari jarraiki bete.

## II.2 1996-KO URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Gazteluko Kultur-Etxeak aurkeztutako urteko kontuak 1996ko abenduaren 31ko Egoera Balantzea eta data horretan amaitutako urteko urtealdiari dagozkion Galdututako Kontua eta Oroitidazkia biltzen ditu; azken hau Zuzendari-Administratzailearen erantzukizuna da. Ikuskapen hau mamitu dugun garaian, kontu hauek ez ditu ez Alkateak ez Udalaren Osokoak oniritzi.

2. Ierroaldian azaldutako oztopoak alde batera, fiskalizazio lana oro har onartutako audit oretza arauari jarraiki gauzatu da, hautatutako probak eginez urteko kontuen ebidentzia egiaztagarria eta horien aurkezpenaren ebaluaketa, erabilitako kontularitza printzipioak eta egindako balioespenak aztertu dituen.

1997ko apirilaren 1ean Gazteluko Udalak Kultur-Etxearen Zuzendari-Administratzailearekin zuten lan harremana eten egin duela esan behar da, honegatik etorkizunean kalteordamen bat ordaindu beharko den oraino argitu ez zaigula.

1. Gazteluko Kultur-Etxeak ez ditu aurrekontu kontabilitatearen berezko kontuak mamitzen, nahiz eta lege horretara behartua dagoen, kontabilitate orokorraren sistema modu bikoitzean eginez soilik.
2. Egindako lanaren hedapenean izan ditugun oztopoak honako hauek izan dira:
  - Egoera Balantzean barne hartutako higiezinduko saldoaren elementuen araberako xehetasunak ez dugu izan. 1991. urtealdiaz geroztik ez dira amortizazio gastuak kontuetaratu eta 1996ko abenduaren 31n pilatutako amortizazioaren balioespenak 11.407.434 pezetan gaitzen du kontuetaratuako zenbatekoa.
  - Ez zaigu 1996ko abenduaren 31n 1.538.731 pezetan egindako izakinen ondasun zerrenda fisikoki eskuratu, ezta horien baloraketarik ere; horregatik, ezin egiaztatu izan ditugu urtealdian izakinetan gertatu diren aldaketak.
3. Erakundeak esparru fiskalean eta Gizarte Segurantzarenean egin dituen hainbat legehausteren ondorioz, Egoera Balantzean jaso gabeko pasiboak soilik sor litezke (ikus A.7 eranskina).



Epaitegi honen ustetan, 2. parrafaldian adierazitako informazioak egiaztatzerik izan bagenu beharrezko gerta litezkeen zuzenketen eragina alde batera, eta 3. parrafaldian azaldutako zalantzaren azkena gogoan hartuz gero, beharrezko gerta litekeen zeinahi zuzenketaren ondorioak ere alde batera utzita, honekin baterako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan 1996ko abenduaren 31ko Gazteluko Kultur-Etxearen ondarearen eta finantza egoeraren eta data horretan amaitutako urteko urtealdian zehar egindako eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute eta horiek guztiak egoki interpretatu eta ulertzeko beharrezko eta behar hainbateko informazioa biltzen dute.

### **II.3 ZERBITZUA KUDEATZEKO MODUARI BURUZKO IRIZPENAK**

Kultur-Etxeak garatzen duen jarduera batik bat ostalaritza jarduerakoa da, nahiz eta horrek ez duen eragozten zerbitzu publikotzat hartzea, Gazteluko udalerriak dituen ezaugarriak gogoan hartuta.

Erakunde autonomo administratibo baten egitura ez da egokiena era honetako jarduera baterako. Administrazio publikoari eskatzen zaizkien betekizunak, batzuetan, oztopo izan daitezke ostalaritza alorrean kudeaketa eraginkorra egiteko.

Aurrez esandakoak are indar handiagoa hartzen du Gazteluko udalaren tamaina txikia gogoan hartzen badugu, ez baitu administrazio egituraketa egokirik Kultur-Etxearen kudeaketa arina eta lege araudiari egokitua gauzatzeko (aurrekontuak egitea, horien kudeaketa eta aldaketa, kontratazio espediente konplexuak, e.a.).

Zailtasun hauek izan dute, zalantzarik gabe, eraginik II.1 idazpuruan azaleratu ditugun legehauste batzuetan.

Kultur-Etxeak udalarekiko duen tamaina handiak, bai langile enplegatuei, bai sarrera-gastuei dagokienez ere, badu beste ondorio bat: bertan gertatzen diren egintza ekonomikoek, zuzeneko kudeaketa egoerari eusten zaion bitartean, udal egoera finantzarioaren gainean nahi ez izandako eragina izan lezakete.

Udalak 1997an erakunde autonomoa desagertarazi eta zerbitzua administrazio emakida bidez zeharka kudeatzeko erabakia hartu du, merkataritza enpresa batek bere arrisku eta zorira kudeatuko lukeena. Honek azaldutako eragozpen batzuk irtenbidetzen ditu, Udalerriarentzat interesgarri diren zerbitzuak mantentzearekin batean.





### III. URTEKO KONTUAK

Ondoko tauletan Erakundeak egindako 1996ko abenduaren 31n Egoeraren Baiantzea eta 1996ko urtealdiko Emaitzen Kontua azalduko ditugu:

EGOERA BALANTZEA 1996ko abenduaren 31n

Pezeta

AKTIBOA		PASIBOA	
<b>HIGIEZINDUA</b> (ikus A 1)	<b>16.390.587</b>	<b>FONDO PROPIOAK</b> (ikus A 3)	<b>16.350.653</b>
Makineria	7.480.000	Kapital Soziala	19.714.189
Tresneria	1.118.704	Aurreko urte emaitza negatiboak	3.324.058
Bestelako instalakuntzak	4.403.677	Galdu-irabaziak	-39.478
Onibarrak	3.107.517		
Informazio proz. ekipoa	384.458		
Higiezin materialaren amort. pilotua	(103.769)		
<b>AKTIBO IBILKORRA</b> (ikus A 2)	<b>4.907.705</b>	<b>EPE MOTZEKO HARTZEKODUNAK</b> (ikus A 4)	<b>4.947.639</b>
Izakinak	1.538.731	Hornitzaileak	1.492.315
Bezeroak	2.742.124	Bezeroen aurrerakinak	712.569
Diruzaintza	626.850	Ordaintzeko dauden ordainsariak	1.707.661
		Ogasun Publiko hartzekoduna	610.984
		Giz. Segurantzaren Erak. hartzekodunak	424.110
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>21.298.292</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>21.298.292</b>

1996. urtealdiko EMAITZEN KONTUA

Pezeta

GASTUAK (ikus A 5)		SARRERAK (ikus A 6)	
<b>GASTUAK</b>	<b>36.891.482</b>	<b>SARRERAK</b>	<b>36.852.004</b>
Izakinen aldak	81.799	Saimentak	36.533.319
Erosketak	12.311.095	Zerbitzu emanaldiak	201.201
Soldata eta lantzeriak	13.508.926	Ustapen dirulaguntzak	50.000
Gizarte Segurantzaren	3.652.373	Bestelako sarrerak	67.484
Bestelako gastu sozialak	505.364		
Konponk. eta zainketa	595.828		
Zerb. prof. independenteak	2.360.881		
Garraroak	30.105		
Aseguru-sariak	190.489		
Banku zerbitzuak eta antzerakoak	(82.591)		
Argita., propaganda eta harr. publikoak	379.515		
Horniketak	1.888.716		
Bestelako zerbitzuak	1.468.982		
<b>GALERAK</b>	<b>39.478</b>		

## ERANSKINA

### A.1 HIGIEZINDUA

Idazpuru honek 1996ko abenduaren 31n zuen saldoa, 16.390.587 pezetakoa, ondoko partidak osatzen dute; horien xehekapena, ordea, ez zaigu eskuratu:

	Pezeta
<b>HIGIEZINDUA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Makineria .....	7.480.000
Tresneria .....	1.118.704
Bestelako instalakuntzak .....	4.403.677
Onibarrak .....	3.107.511
Informazio prozesuetarako ekipiak .....	384.458
Higiezindu materialaren amortizazio pilatua .....	103.769
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.390.587</b>

Higiezindu materialaren pilatutako amortizazioa, 103.769 pezetakoa, 1991. urtealdian hainbat elementuri egindakoarekin bat dator, horretarako erabilitako irizpideak ezagutzen ez direla. Higiezindu materiala amortizatzeko urteko zuzkiduren gutxi gora-beherako kalkulia egin da, 11.407.434 pezetako zuzenketa pilatua sortu delarik. Pilatutako amortizazioaren xehekapena ondotik erakusten den hau litzateke:

	Pezeta
<b>PILATUTAKO AMORTIZAZIOA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Makineria .....	5.064.277
Tresneria .....	874.434
Bestelako instalakuntzak .....	3.228.748
Onibarrak .....	2.074.137
Informazio prozesuetako ekipiak .....	269.607
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.511.203</b>

Kultur-Etxea kokatua dagoen eraikina Gazteluko Udalaren jabetzakoa da, horren erabilera Erakunde Autonomoari utzia diola. Kultur-Etxearen kontabilitateak ez du eraikinaren kontabilitate-balioa jasotzen, eta duen balioa ezezaguna da.

## A.2 AKTIBO IBILKORRA

4.907.705 pezeta egiten dituen magnitude hau, ondoko idazpuruek osatzen dute:

	Pezeta
<b>AKTIBO IBILKORRA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Izakinak ..	1.538.731
Zordunak ...	2.742.124
Diruzaintza ..	626.850
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.907.705</b>

Izakinek erakusten duten 1.538.731 pezetako saldoa ez da egiaztatzerik izan, ez baitago ondasun zerrenda fisikorik. 1996ko abenduaren 31n izakimen zerrenda baloraturik ere ez dugu izan.

Diruzaintzari dagokionez, eskudiruzko kutxan dagoen 41.189 pezetako aldea aipatu behar da, 1996ko abenduaren 31n kontabilitateak erakusten duen saldoaren eta kutxa liburuaren saldoak erakusten duenaren artekoa, horren nondik-norakoaren berririk izan gabe. Berebat, ezezaguna da gure auditoreek 1997ko maiatzaren 19an egindako kutxa kontaktetan azaleratutako 25.941 pezetako aldearen jatorria.

## A.3 FONDO PROPIOAK

1996ko abenduaren 31n, Fondo Propioak ondoko partidek osatzen dituzte:

	Pezeta
<b>FONDO PROPIOAK</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Kapital soziala ..	19.714.189
Aurreko urteald. emaitza negatiboak ..	(3.324.058)
Galdu-irabaziak ..	(39.478)
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.350.653</b>

Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari jarraiki, Kapital Soziala kontusailari ematen zaion deskribapenak Ondarea beharko luke izan, eta horren balorea 1990eko abenduaren 31n aktibo eta pasiboaren arteko aldearekin eskuratzen da.

Fondo Propioak aztertzerakoan 1991ko abenduaren 31n egin zen itxiera asientoa 1992ko urtarrilaren 1ean irekiera asiento modura egin zenaz bestelakoa da. Alde hau aktibo eta pasiboko partiden arteko saldoen erregularizazioen ondorioz sortu da, Kapital Sozialaren zenbatekoa 4.730.021 pezetan gehitzea eragiten dutenak; kitatutako kontusail nagusia Udalarekiko 4.544.474 pezetako zor bati dagokio.

#### A.4 EPE MOTZEKO HARTZEKODUNAK

Atal hau 1996ko abenduaren 31n ondoko kontusailek osatzen dute:

	Pezeta
EPE MOTZEKO HARTZEKODUNAK	ZENBATEKOA
Hornitzaileak .....	1.492.315
Bezeroen aurrerakinak .....	712.569
Ordaintzeko dauden ordainsariak .....	1.707.661
Kontzeptu fiskalengatik Ogasun Pub hartzekoak .....	610.984
Gizarte Segurantzaren Erakunde hartzekoak .....	424.110
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.947.639</b>

Horien gainean egindako azterketatik honako ondorio hauek eskuratu ditugu:

- Bezeroen Aurrerakinak kontusailak Kultur-Etxean egiten diren egonaldietarako aurrez eskatzen diren kopuruak biltzen ditu.
- Ordaintzeko dauden Ordainsariak kontusailean 100.000 pezeta kontuetaratu dira, 1996ko iraileko kontabilitate lan eta nominak eta gizarte aseguruak egiteagatik. Kopuru hau Zerbitzuak Emateagatik Hartzekodunak kontusailean kontuetaratu behar zatekeen, Kultur-Etxekoa ez den pertsona bati baitagokio.

#### A.5 GASTUAK

Kultur-Etxearen gastuek 1992-1996 aldian izan duten garapena honako hau izan da:

	Pezeta				
GASTUAK	1992	1993	1994	1995	1996
Salga. izakinen aldak. (ikus A.2) .....	(8.661)	166.254	85.197	117.750	81.799
Salgaien erosketak .....	10.854.243	10.628.295	12.023.116	11.630.547	12.311.095
Langileen gastuak .....	11.001.876	16.830.201	16.649.069	17.871.338	17.666.663
Kanpoko zerbitzuak .....	8.149.971	7.578.183	4.012.802	6.899.405	6.831.925
Finantza gastuak .....	-	-	-	70.684	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>29.997.429</b>	<b>35.202.933</b>	<b>32.770.184</b>	<b>36.589.724</b>	<b>36.891.482</b>

Langile gastuetan egin den azterketan honako huts hauek azaleratu dira:

- Zuzendari-Administratzaileak ARCEPAFERen (Toki Administrazioarentzat enplegu baldintzak arautzen dituen akordioa) 12. mailari dagokion soldata, gehi %20ko osagarria jasotzen du. Nomina agiriak, ordea, kopuru txikiagoa erakusten du, Ostalaritza Hitzarmenari dagokiona, alegia.



Bi kopuruen arteko aldea 1993, 1994, 1995 eta 1996an nomunaz kanpo ordaindu da. Bestelako Gastu Sozialak eta Zuzendaritza Lanak kontzeptuen ordainetan eta kopuru hauek ez zaie NUIZ atxikipenik egin eta horiengatik Gizarte Segurantzari ere ez zaio kotizatu.

Honen ondorioz, Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari, hurrenez hurren, 916.433 pezeta eta 1.170.677 pezetako zorra eragin zaie, gainkargu eta berandutza interesak gogoan hartu gabe (ikus A.7 eranskina).

- 1996. urtealdian zehar, Kultur-Etxearen plantilakoak ez diren pertsonen lan egindako orduen araberrako ordainketak egin zaizkie, 362.375 pezetakoak, inolako kontratu loturarik gabe eta Profesionarien Zerbitzu Independiente modura erregistratuz (ikus A.7 eranskina).

Kanpoko Zerbitzuen kontua ondoko kontusail hauek osatzen dute:

	Pezeta
<b>KANPOKO ZERBITZUAK</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Konponketak eta zaintza .....	595 828
Profesionarien zerbitzu independenteak .....	2 360 881
Garraioak .....	30 105
Aseguru sariak .....	190 489
Banku zerbitzu eta antzerakoak .....	182 591
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak .....	379 515
Horniketak .....	1 888 716
Bestelako zerbitzuak .....	1 468 982
<b>GUZTIRA</b>	<b>6 831 925</b>

Profesionarien zerbitzu independenteak izeneko kontusaila, 2.360.881 pezetako saldoa egiten duena, ondotik adierazten den moduan zati-banatzen da:

	Pezeta
<b>PROFESIONARIEN ZERBITZU INDEPENDIENTEAK</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Aholkulantzak (ikus A.7) .....	102 000
Kontabilitate lanak (ikus A.7) .....	898 000
Lanen araberrako langileak (ikus A.7) .....	362 375
Zuzendaritza lanak (ikus A.7) .....	998 506
<b>GUZTIRA</b>	<b>2 360 881</b>

Aholkularitza eta Kontabilitate Lanak kontusailean 100.000 pezetako hileroko ordainketak kontuataratzen dira, kontabilitate, nomina eta aseguru sozialei dagozkien lanak egiten dituen pertsonari ordaintzen zaizkionak; pertsona hori ez dago Kultur-Etxearen plantilan. Ez dago izenpetutako kontraturik eta emandako zerbitzuengatik ere ez du ordainagiririk aurkezten, BEZ eta dagozkion NUIZ atxikipenak eginda (ikus A.7 eranskina).



Orobat, Banku Zerbitzu eta Antzekoak kontusailak 82.591 pezetako zor saldoa jasotzen du. Kultur-Etxearekin lan egiten duten bi finantzetxeek ordaindutako 82.735 pezetako interes positiboak kontusail honetan kontuetaratu baitira. Bestelako Finantza Sarrerak kontusaileari beharreen.

## A.6 SARRERAK

Kultur-Etxearen sarrerak 1992-1996ko aldian izan duten bilakaera honako hau izan da:

	Pezeta				
SARRERAK	1992	1993	1994	1995	1996
GUZTIRA	29.314.176	31.501.704	34.670.801	35.749.531	36.852.004

1996ko sarreren xehekapena honako hau da:

	Pezeta
SARRERAK	ZENBATEKOA
Taberna	5.804.468
Jatetxea	13.400.861
Eusko Jauriantzako taideak	5.936.555
Diputazio eta besteakoen barnetegiak	14.378.345
Askotakoak	331.175
GUZTIRA	36.852.004

Tarifa eta fakturaketetan legezkotasuna betetzeari dagokionez, Kultur-Etxean 1991-1995 aldian ezarri diren prezio publikoak ez dituela udalaren Osokoak oniritzi, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen 11/89 Foru Arauaren 43. atalean agintzen den moduan, eta ez direla Gipuzkoako Agintaritza Aldizkarian argitara eman egiaztatu dugu.

Aldi honi dagokionez, 1996. urtealdirako prezio zerrenda baizik ez dugu eskuratu; tarifa hauek ez dira zorrotzasunez jarraitzen, nahiz eta sortzen diren aldeak oso txikiak izan.

1993 eta 1994. urteetan «B» izeneko kode berezi batekin 1.526.079 pezetako salmenta ordainagiriak egin ziren, kontabilitatean islarik izan ez zutenak. Ordainagiri hauen kobraketak aurrezki libreta batean egin ziren eta libreta horretan fondoan erabilera Zuzendari-Administrazioailearen izenpearekin soilik egin zitezkeen. Sortutako fondoan norakoa honako hau izan zen: 836.079 pezeta Zuzendari-Administrazioailearen Zuzendaritza osagarri modura eta 690.000 pezeta langileei banatutako zuzpergarri modura (90.000 pezeta Zuzendari-Administrazioaileari eta 600.000 pezeta gainerako langileei) (ikus A.7 eranskina).



## A.7 ALDERDI FISKALAK

Ondorioetan azaldu dugun legez, 1993tik 1996ra bitarteko urtealdietan Zuzendari-Administratzaileak bere ordainsariaren atal bat nominaz kanpo jaso du, ondoko taulan adierazten den moduan:

	Pezeta				
ZUZENDARI-ADMINISTRATZAILEAREN ORDAINSARIAK	1993	1994	1995	1996	GUZTIRA
Nominaren arabera ordainsaria	2 617 949	2 141 826	2 094 660	2 090 098	8 944 533
Zuzendaritza lanak	113 456	836 079	1 002 151	998 506	2 950 192
Bestelako gastu sozialak (EPSV/BGAE ekarp.)	-	420 000	462 000	505 364	1 387 364
Zuzpergarriak	40 000	50 000	-	-	90 000
<b>GUZTIRA ORDAINDUTAKO ORDAINSARIA</b>	<b>2 771 405</b>	<b>3 447 905</b>	<b>3 558 811</b>	<b>3 593 968</b>	<b>13 372 089</b>

Hona hemen nominaz kanpoko ordainsariak NUIZeko atxikipenetan eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioetan eragin dituen aldeak (BGAEri egiten zaizkion ekarpenek ez dute atxikipenik eta Gizarte Segurantzarako oinarrietan ere ez dira jasotzen):

	Pezeta				
NUIZ ATXIKIPENAK	1993	1994	1995	1996	TOTAL
Egiazko ordainsariaren arabera	471 138	514 743	557 425	555 948	2 099 254
Nominaren arabera	445 051	235 600	251 359	250 811	1 182 821
<b>ALDEA</b>	<b>26 087</b>	<b>279 143</b>	<b>306 066</b>	<b>305 137</b>	<b>916 433</b>

  

	Pezeta				
GIZ SEGUR KOTIZAZIOAK	1993	1994	1995	1996	GUZTIRA
Egiazko ordainsariaren arabera	1 072 256	1 186 635	1 182 672	1 179 537	4 621 100
Nominaren arabera	1 012 884	839 381	739 950	798 208	3 450 423
<b>ALDEA</b>	<b>59 372</b>	<b>347 254</b>	<b>382 722</b>	<b>381 329</b>	<b>1 170 677</b>

Zuzendari-Administratzaileari nominaz kanpo ordaindutako kopuru hauek aitortu ez izateak kontzeptu hauengatik Gizarte Segurantza eta Foru Ogasunarekiko, hurrenez hurren, 916.433 pezeta eta 1.170.677 pezetako zorrak eragin ditzake. Kopuru hauetan ez dira gogoan hartu dagozkion gainkargu eta berandutza interesak.

Gainerako ordainsariari dagokienez ez da pasiboa zenbatetsi, horiek jaso dituztenen zcaugarririk ez izateagatik.

Kontabilitate, nomina eta aseguru sozialaren egitekoak gauzatzen dituen pertsonak, plantilakoa ez denak eta izenpetutako inongo kontraturik aurkezten ez duenak, ez du betetako zerbitzuen kontzeptuko ordainagiririk aurkezten, BEZ eta dagozkion NUIZ atxikipenak eginez. Foru Ogasunak NUIZ kontzeptuan atxikitu gabeko eta Ogasunari ordaindu gabeko kopuruak eska litzake; 1992az geroztik ordaindutako sariak 4.002.500 pezetakoak direla kontu eginez gero, kopuru horiek 600.375 pezeta osatzen dituzte.







## I. INTRODUCCIÓN

El Alcalde del Ayuntamiento de Gaztelu solicitó ayuda técnica al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas-Herri Kontuen Euskal Epaitegia para modificar la forma jurídica de prestación de servicios por el organismo autónomo Kultur-Etxea.

Al obtener la documentación necesaria para realizar dicho trabajo, se encontraron errores y deficiencias en la gestión del organismo autónomo, que impulsaron a la realización de un borrador de informe diagnóstico del mismo, referido al período 1991-95. Las conclusiones de este borrador de informe diagnóstico fueron puestas por el Tribunal en conocimiento de los responsables y gestores de la entidad, para que formularan las alegaciones que considerasen pertinentes.

Una vez recibidas éstas, el Pleno del Tribunal del 20/02/97 aprobó incluir en el Programa de Trabajo para el año 1997 un informe de fiscalización sobre el organismo autónomo Kultur-Etxea del Ayuntamiento de Gaztelu.

La revisión adicional realizada ha consistido en la auditoría de las Cuentas Anuales de la Kultur-Etxea correspondientes al ejercicio 1996, y en la revisión del cumplimiento de la legalidad vigente para el mismo año.

En el presente informe se integran las conclusiones obtenidas en el diagnóstico inicial y en el posterior trabajo de fiscalización.

El Pleno del Ayuntamiento de Leaburu-Gaztelu-Txarama aprobó los estatutos del organismo autónomo Kultur-Etxea el 26 de septiembre de 1990. Desde octubre de 1994, una vez finalizado el proceso de segregación entre Leaburu y Gaztelu, la entidad es un organismo autónomo del Ayuntamiento de Gaztelu.

La Kultur-Etxea presta, fundamentalmente, un servicio de hospedería, incluyendo servicios de albergue, restaurante y bar abiertos al público.

Durante 1996 su plantilla ha sido de siete personas (un Director-Administrador y otros seis trabajadores) todos ellos contratados a jornada completa.

El Pleno del 8 de mayo de 1997 adjudicó a NOKA 2001, SL la gestión del servicio público de albergue, restaurante y bar de la Kultur-Etxea del Ayuntamiento de Gaztelu.



## II. CONCLUSIONES

### II.1 OPINIÓN SOBRE CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

#### Aspectos Generales

